



❖ PORTU AUZO

Pelikulak ikusteko aukera, gaur

Gabonetako ekintzen barruan, pelikula dibertigarriak ikusteko aukera izango da gaur, 18:00etatik aurrera, Portuko Auzo Elkartearen. II

❖ EGIN DEZAGUN BIDEA

Lau kalejira Plazara, bihar

Hernaniko Egin Dezagun Bidea Bilguneak kalejira eta antzerkia antolatu ditu bihar, preso eta iheslarien alde, urteko azken ostirala izaki. 20:00etan, lau auzotatik kalejira bana aterako da: Zikuñagako errotonda, Portuko plaza, Antziola-ko errotonda eta Etxeberriko bolatokia izango dira abiapuntuak. Plaza Berrin elkartuko dira eta ondoren, ekitaldi berezia egingo dute. Larunbatean, berriz, Martuteneko espetxera martxa izango da. II

❖ GABONETAKO ZOZKETA
Hernaniko Kronika-Berriak

Hiru sari atera dira; bat falta: 1.114

Gabonetako lau saski zozketatu zituzten abenduaren 23an Hernaniko Kronikak eta Berriak merkataria eta ostalarien elkarrekin. Hiru saskiren jabeak azaldu dira, baina batena falta da: laugarren saskiarena, 1.114 zenbakia duena. Irigoien zapata dendan saldua da. Urtarrilaren 12ra arte izango da saria jasotzeko aukera, bestela berriz egingo da zozketa. II

❖ ATEZ ATEKOA

Kaxkoan, errefusa bihar bilduko da

Kaxkoko auzotarrek bihar goizean atera behar dute errefusa, 09:00etatik 12:00etara. Gabonak direla eta, aldaketak izan dira Atez Ateko bilketan. Kale hauei eragingo die: Atzieta, Gudarien plaza, Tiloseta, Iturriaga, Izpizua, Kardaberaz, Kale Nagusia, Nafar kalea, Biteri, Plaza Berri, Zapa, eta Urbieta zati bat (Elkano-Atzieta tartea). II

PLENOA ASTEARTEAN

Ereñotzuko Zentrala Hernaniren eskutara pasako da, urte batzuetarako

Zentrala berritzeko 7 urteko epea dauka Hernaniko Udalak. Epe horretan berrituz gero, 50 urterako Hernanirentzat geratuko da eraikina; berritzen ez bada, berriro Erreterriak hartuko du, bera baita jabea.

ERRETERRIAK eta Hernanik tratua sinatu dute Ereñotzuko Makinetxea Zentral Hidroelektrikoari buruz (Hernanitik joanda, auzoan sartu eta eskubitara geratzen den bigarren edifikzioa). Akordio horrek dioenez, zentrala Hernaniri pasako dio Erreterriak, 7 urterako (Erreterria baita jabea). Epe hori izango du Hernanik, zentrala berritzeko, eta ondoren, 50 urterako Hernanirentzat izango litzateke. Berrikuntzarik egiten ez bada, 7 urte barru berriz Erreterriaren esku geratuko da.

Hori erabaki zuen Plenoak asteartean, Gobernu Taldearen aldeko botoekin; gainerakoek kontra bozkatu zuten. Egoera ekonomikoari buruz hitz egin zuten, batez ere Plenoan, eta bertan beste hainbat gai landu ziren; tartean, PSE-EEren mozio bat.

Momentuz Hernaniren esku; proiektua, aztertze
Oposizioko alderdi guztiek jakinarazi zioten Gobernu Taldeari, egoera ekonomikoa ez dela egokiena Ereñotzuko Zentrala berritzen hasteko.

Hernaniko Udalak azterketa bat eginga dauka zentral horri buruzkoa. Hor aurreikusten da, Interpretazio Zentro bat egitea. Proiektu horretan 720.000 euroko gastua aurreikusten da. Dena dela, aprobatu gabe dago hori.

PSE-EEko Jose Ramon Chicak adierazi zuen, ez zaie la logikoa iruditzen akordio bat sinatzea, jakinda, agian proiekturik ez dela egingo. «Erabaki hori hartu behar zen,



Ereñotzuko zentrala, makinaria zaharra bertan dago oraindik, 1900 urtekoa (goian, argazki txikian).

Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko dio, Euskara Biziberritzeko Plana martxan jartzeko asmoa duela.

proiektua egingo dela kontzentzitatuta; zer egin behar dugu? akordioa guk sinatu, eta erabakia hurrengo agintaldikoei utzi?».

EAJren izenean, Andoni Amonarraizek uste du, Erreterriako Udalarik zerbait gehiago eskatzea bazegoela. «Urteetan egoera kaxkarrean egon da eraikin hori, eta ez da Erreterria batera presionatu. Gainera, gogoan hartu, zer-

bait egiten bada ere, gero berriz Erreterriarentzat izango dela, 50 urte barru. Baditugu inbertsio interesgarriak, geureak diren gauzetan, eta ez besteenetan».

Hamaikabat alderdiak prentsa oharrean adierazi du, Udalak proiektu hau atera duela beste prioritate batzuek badiren garaian. «Adibidez, uholdeei aurre egiteko obrak. Proiektu hau interesgarria izan liteke, baina ez garai honetan».

Gobernu Taldearen izenean, Luis Intxauspek adierazi zuen, Udalak ez duela konpromisorik proiektu bat edo beste egiteko. «Udalak aukera orain zeukan, zentrala 7 urterako eskuratzeko. Horre-

kin ez gara konprometitu proiektu bat egitera; ikusi egin beharko dugu zerbait egin litekeen edo ez».

Euskara Biziberritzeko Plana egiteko asmoa

Plenoak onartu zuen, baita ere, Hernaniko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia martxan jartzea. Hori egiteko asmoa duela, Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko dio Hernaniko Udalak.

Alderdi sozialistak mozio bat aurkeztu zuen, eta ez zen onartu, Bilduk kontra bozkatu. Bertan eskatzen zen, Udalak Diputazioari bueltatu behar dion diru kopuru bat, hiru urteko plazoan ordaintzeko eskatzea. II

CERCADOS Y PUERTAS SARELAN

AENOR 12 años a su servicio, liderando el mercado.

Empresa Registrada ER-1636/2007

recuerda! ahora estamos en...

o Troya, 14 - 2 • Pol. Txalaka, Arandera • 20115 Ergobia

Sistemas de Cerramiento perimetral y ocultación

www.sarelan.com

670 440 939
943 555 779

tripontzi taberna

Egunero Menuak

Kardaberaz, 11 tf. 943555724

GABONETANERE EGINDEZAGUNBIDEA

OSTIRALA 30
AZKEN OSTIRALA

20:00ETAN PORTU, ZIKUÑAGA, ETXEBERRI ETA ANTZIOLATIK ZUTABEAK ATERAKO DIRA PLAZA BERRIRAINO. ONDOREN HERRI ANTZERKIA.

☎ TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalaritza anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauetz:** Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Lainoak eta euri kontuak itzuliko dira. Eguneke tenperaturak behera egin eta elurraren maila jaitsi egingo da, 800 m inguruan kokatuko da. Min.6° / Max.10°.
BIHAR Hobetzeraz egingo du, baina giro motela izango da nagusi. Lainotuta egongo da eta euri pixka bat egin dezake. Min.6° / Max.12°.

LURREKO - PRODUKTU EKOLOGIKOAK



Ibon Zapiain, dendako arduraduna, graneleko produktuen aurrean.

Janari eta produktu ekologikoak, Izpizua kalean: 'Lurreko'

Gaur irekiko dute denda berria Hernanin, eta produktu guztiak ekologikoak izango ditu. Aukera badu, pixura erosteko: aleak, jaboia...

«PIXURA erosteko aukera jarri nahi genuen, granelean, garai batean bezala. Horrekin batera, produktu guztiak ekologikoak izango dira. Filosofia horrekin hasi ginen, eta honetara iritsi gara».

Gaurtik aurrera denda berria zabalik izango da Hernanin, Izpizua kalean: *Lurreko*. Janariak eta bestelako produktu ekologikoak aukeran izango dira, lokal eder batean. Fruta, berdurak, zerealak, gazta, ardoa... era guztietako jaki eta edariak.

Eta bestelakoak ere bai: kosmetikako gauzak, umeentzako pixoihalak, jaboia...

«Zaindu osasuna, eta ingurumena»

«Bakoitzak bere ontzia ekarri ahal izango du zenbait gauza erosteko: arroza, lentejak, arta-txikia, cuscusa... eta baita jaboietarako ere: labardorako, ontziak garbitzeko, lurra eta abar garbitzeko...». Enbaseek produktua garestitu egiten dutela dio Zapiainek, eta ingurumenari

kalte egiten zaiola. Horrez gain, osasunez jateari garrantzia eman nahi izan diote. «Ekologikoak mesede egiten digu guri, eta baita inguruari ere».

Produktu freskoak ere izango dira: fruta, berdurak... «garaikoak izango ditugu».

Ibon Zapiain da dendako arduraduna, eta oso garbi dauka «talde-lanean» sortu den denda dela berea. «Jende asko izan dut laguntzen, eta denei eskerrak eman nahi dizkiet». II

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Kartzelak hustutzeko, denok kalera!

Urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestazio "Kolosalaren atarian, 2011 urteko azken ostiral honetan, Preso eta Iheslarien eskubideak aldarrikatzeko elkarteratze berezia antolatu da.

Azken aste hauetan, *Egin Dezagun Bidea*, kanpainaren itzalean, herriko zenbait jende bildu gara preso eta iheslarien eskubideak errespetatu daitezkeen eskatzeko. Oraingo honetan, gure aldarrikapena auzoetan entzun dadin eta jendearen parte hartzea bultzatzeko asmoz, ostiraleko ekitaldi

horren esparrua zabaldu nahi izan dugu.

Honetarako, arratsaldeko 20:00etan, herriko lau puntu ezberdinetatik, hainbat pertsonen osatutako errenkadak aterako dira Plaza Berrin elkartzeko asmoz:

- Zikuñaga auzotik.
- Portutik.
- Florida auzotik.
- Antziola auzotik.

Une berean, herriko kaskoaren zenbait kaleetan moztutako pertsonen Plaza Berrin hurbiltzeko gonbitea luzatuko diote jendea.

Ondoren, Plaza Berrin bildutakoak, Gudari enparantza-

ra joango gara herri antzerkiko ekitaldi batean parte hartzera.

Kartzelaratuta eta ihes eginda dauden herriko seme-alabak gure herriko kaleetan berriz ikusteko, denon indarra behar da. Garai berri honetan ezinbestekoa izango dugu kalera ateratzea euskaldunon eskubideak defendatzera, Estatuko botere politiko, juridiko, mediatiko eta Espainiako "iritzi publikoa" ere, horien kontra baitaude.

Etor zaitezte gurekin!

Joserra Altzelai Sagasta,
Egin Dezagun Bidea
bilgunearen izenean

◆ PLATER TIRDA - San Silvestre Tiraldia Larunbatean tiraldia, Santa Barbaran

San Silvestre eguneko tiraldia antolatu du Txantxangorri elkarteak, larunbatean. Foso unibertsaleko modalitatean izango da, orange koloreko 25 plater puskatu beharko dira. Izen ematea egunean bertan izango da 10:00etatik 11:30etara. Prezioa: 15 euro, bazkideek. Sariak, sailkapenaren arabera aukeratuko dira. Tiraldia bukatzean, luntxa izango da parte hartzaile guztientzat. II

❖ GAZTE ASANBLADA

Mus Txapelketa larunbatean, Gaztetxean

Mus Txapelketa antolatu du Gazte Asanbladak, larunbatean. Gaztetxean izango da, 16:00etatik aurrera. Izen ematea, bertan. II

❖ GAZTE TXOKOA

Gaur, gazte festan: txapak, extensioak, pizzak, musika...

Gazte Txokoak gazte festa antolatu du gaur, Traspakarren, kale hezitzaileen lokalean (Ave Maria parke ondoan dago lokala). LH 6. mailatik DBH 4. maila bitarteko gazteentzat da festa. Bertan, egun osoan egingo dituzte: txapak, extensioak, graffitiak... jolasteko aukera ere izango dute. Musika ere izango da eta bazkaria prestatuko dute denen artean, pizzak hain zuzen. Horrez gain, argazki Lehiaketako argazkiak ikusiko dituzte eta sariak banatuko dituzte. II

❖ ARRAUN ELKARTEA

Gabonetako zenbaki saritua: 8.268

Hernaniko Arraun Elkartek rifak saldu ditu Gabonetako saski eder bat zozketatzeko, eta zenbaki saritua honakoa da: 8.268 (Gabonetako loteriarren azken 4 zenbakiak). Saskian, Eusko Labeleko eta Hernaniko produktuak daude. Balioa, 400 eurokoa da. Saria jasotzeko, deitu: 669 270 481. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARIA SANTA KRUZ OYARZABAL

ANDREA
(Akola baserrikoa)
(Nikolas Susperregiren alarguna)
Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Kandi eta Jose Luis Arretxe (†), Iñaxi eta Axenxio Uribe, Mari Karmen eta Anselmo Aramburu, Joxe eta Isabel Altuna; bilobak: Andoni eta Itxaso, Nicolas eta Gurutz, Anselmo eta Bakartxo, Joxan, Jesus eta Elena eta Jon; birlobak: Julen, Lore, Maitane, Joseba, Ane eta Aimar; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezteza **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **SEIETAN, Ereñotzuko ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan egingo den hiletara, gorputza bertan dela. Aldez aurretik, mila esker.

Hernani - Ereñotzu, 2011ko abenduaren 29an

Helbidea: Ereñotzu, 14 - 3

OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da.

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pixua salgai, Mañe y Flaquer kalean, 5. solairua kalefakzioarekin. 250.000 €. Deitu: 679 501 384

Alokairuko pisu bila nabil. Mutil bat naiz, arduratsua, lana eta abalarekin, 500-600 € ordaintzeko prest. Deitu: 618 027 897

Pixua alokatzen dut, Kardaberaz kalean. 650 euro, kontratuarekin. Deitu: 653 714 946
Eskarmentudun emakumea behar da tabernan lan egiteko, asteburuetan. Deitu: 669 160 727

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazioa, eguberrikako prezio bereziak 2X1. Beherapenak aurpegi tratamenduetan. Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Azieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)